


BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Atal honetan, bezeroekin izango dugun harremana eta komunikazioa nolakoa izango den eta horrekiko izango dugun kudeaketa azalduko dugu. Atal honi garrantzi eta atentzio handia emango diegu, gure enpresaren ezinbesteko zati bat dela uste baitugu.

Gure enpresaren hazkuntza bezeroen esku dago. Hori dela eta, beti egongo gara gure bezeroei entzun eta laguntzeko prest. Horretarako, baliabide desberdinak eskainiko dizkiegu beti gurekin harremanetan jarri ahal izateko eta erantzuna ahalik eta azkarren jasotzeko.

Hasteko, plataforman bertan enpresaren koordinatzaile bezala gure perfila izango dugu, enpresa antzetzuko eta gu hiruron artean kudeatuko duguna. Beste erabiltzaileekin bezala mezuak bidaltzeko aukera egongo da eta baliabide hori erabili dezakete aplikazioko partaideek gurekin harremanetan jartzeko. Bertatik guk ahal den bezain laster erantzungo diegu, beraien edozein zalantza argitzeko eta aholkuak esku-zabalez jasotzeko.



Bestalde, ekintza eta eguneratze berriez bezeroei berri emateko enpresaren erabiltzaile hori erabiliko dugu. Bertatik jakinarazpenak bidaliko dizkiegu erabiltzaile guztiak informatuta edukitzeko eta komunikazio fluido bat mantentzen saiatzeko.

Hortaz gainera, zenbait hilabetero inkesta bat bidaliko diegu erabiltzaile guztiei edo ia guztiei beraien aplikazioari buruzko iritzia partekatzeko eta egin ditzakegun aldaketak eta edozein gomendio mota utzi ahal izateko. Gure helburuetako bat gure bezeroekin harreman estu bat izatea da, eta aplikazioaren parte senti daitezen. Beraiek dira horren zati handi bat eta plataformaren barruan beraiek eroso egotea da gure proiektuaren oinarrietako bat.



Sare sozialei dagokienez, Instagram eta Facebook kontuak edukiko ditugu. Arestian aipatu dugun kontuan bezala, bertan bezeroak ere jarri daitezke gurekin harremanetan. Gainera, gure proiektua beste pertsona gehiagorengana iristeko eta ezagunagoa egiteko ere erabiliko ditugu sare sozial horiek. Beste modu batera esanda, gure aplikazioari ikusgarritasuna emateko asmoarekin.



Bukatzeko, erabiltzaileentzako hainbat ekintzak prestatuko ditugu. Enpresaren profilean ere jarriko dugu elkartze ekintza horien beharrezko informazio guztia: tokia, ordua, eguna, pertsona kopurua, nola apuntatu daiteke... Horrela informazio guztia partekatuta edukiko dugu bezeroekin.

ETS